

2007ko ekainaren 16an, LARUNBATA, goizeko BEDERATZIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Udala Eraikitzeako Batzarrera deitzen zaitugu.

Aduna, 2007ko ekainak 13.

IDAZKARIA.

UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA.

Organua: Udalbatza berria

Batzarra: lehenengoa

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2.007ko ekainak 16

Ordua: 9:00

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Zinegotziak:	Arantza Aburuza Alkorta
	Miren Aburuza Alkorta
	Jose Antonio Irazu Mendizabal
	Iker Iturrioz Lekuona
	Ainara Iturrioz Lekuona.
	Iñaki Aristeta Gurrutxaga
	Josu Amilibia Alsua
Idazkaria:	Maria Etxeberria Urretabizkaia

Osoko Bilkura hasi aurretik, marko demokratikorako proposamenaren liburuxka zinegotziei eta Idazkariari banatzen zaie, 4 herrialdez osaturiko autonomi estatutoa erabakitzeko eskubidearekin aipatzen delarik eta bide batez, hauteskunde antidemokratikoak izan direla salatzen dute. Ondoren bilkura hasten da.

Aztergaiak:

1.- Adineko mahaia eratzea.

2.- Udala eratzea.

3.- Alkatea auketzea.

Esan-eginak era erabakiak

1.- Adineko mahaia eratzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.atalak dionari jarraiturik, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Erabakia:

Adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Jose Antonio Irazu Mendizabal

Zinegotzirik gazteena: Ainara Iturrioz Lekuona

Idazkaria: Maria Etxeberria Urretabizkaia

2.- Udala eratzea.

Adineko mahaiak zinegotzi-egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik eta legeak agintzen duenez, zinegotziek konstituzioa beteko dutela hitza eman dute.

Erabakia:

Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du. Hona hemen, zinegotzien zerrenda: Arantza Aburuza Alkorta, Miren Aburuza Alkorta, Jose Antonio Irazu Mendizabal, Iker Iturrioz Lekuona, Ainara Iturrioz Lekuona, Josu Amilibia Alsua eta Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Jarraian, Idazkariak agiri hauek aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten:

a). Kutxako kontaketa agiria. b). Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztatagiriak eta c).Udal-ondarearen inbentarioa.

3.- Alkatea aukeratzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196.atalari jarraiturik, adineko mahaiak Alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

* “Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai”

* “ Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da Alkate”

* “ Horrela gertazen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da Alkate”

* “Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da Alkate”

Horrela bada, Arantza Aburuza Alkorta zinegotzia (EAE-ANV)-koa zerrendaburu delarik, isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona bakoitzak lortutako botoak:

Arantza Aburuza Alkorta zinegotziak 7 boto

Erabakia:

Bozketak erakusten duenez, Arantza Aburuza Alkorta da alkate.

Ondoren, Arantza Aburuzak onartu du alkate izatea. Horrela bada, Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Arantza Aburuza Alkorta hartu egin du alkate-kargua.

Ondoren, Alkateak ondorengo idatzia Idazkariari aktan jasotzeko esaten dio, idatziak zera dio:

EUSKAL HERRIAN DEMOKRAZIOA ZERO:

Gaur, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Udalak osatuko dira, baina demokraziaren egun haundia izan behar lukeena guztiz bestelako eguna bilakaturik dator, osatuko diren hainbat udaletan herritarrek adierazitako borondatea ez delako errespetatuko.

Maiatzaren 27an burutu diren hauteskundeetan eta, Alderdien Legea dela medio ezker abertzaleari berdintasunezko baldintzetan parte hartzea galarazi zaio, ilegalizazioak burutu dira eta, azkenik, herriaren borondatearen aurkako instituzioak osatzeko hautua egin dute alderdi politiko gehienek.

Euskal Herrian ez dago demokraziarik edo beste era batetara esanda: Euskal Herrian demokrazioa zero: Demokraziaren urraketa eta ilegalizazioa helburu politiko garbi batekin egiten da: ezker abertzalearen ildoak, proposamenak eta proiektua ezkutatu eta bere bidea eta garapena galeraztea.

Eta hau guztia noiz gertatzen da?. Gure herriak gatazka konpontzeko aukera parez pare duenean. Estatu espainolak, PSOE eta PNVren eskutik, aukera hau alboratu egin du; eta gatazkaren erroetara joz, konponbidea posible egingo lukeen autodeterminazio eskubidea eta lurralde egituraketaren inguruko irtenbide adostua ukatu egin du.

Konponbideari ezetz esan diote PSOE eta PNV alderdiek. Eta herri honen gehiengoak aldarrikatzen dituen erabakitze eskubidea eta lurralde egituraketari erantzun zehatza eman asmoz, ezker abertzaleak aurkeztu duen Marko Demokratikorako proposamena baztertu egin dute.

Azkenik, hauteskundeotan gure ordezkariak ilegalizatu dute, instituzioetan prozesu demokratikoaren alde egin nahi dugun lana ere oztopatu nahian.

Baina ez dute lortuko. Gaurtik eta Marko Demokratikorako proposamena eskuan hartuta, herri honek behar duen konponbide politikoa aldarrikatzera goaz, erabakitze eskubidea bere baitan duen lau herrialdeetarako autonomia aldarrikatzera goaz, prozesu demokratikoa aldarrikatzera goaz, lehen bait lehen herri honek merezi duen bake eta demokrazia eskenatokia eskuratu dezan.

Gora Euskal Herria askatuta:

Horrenbestez, alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oneritziarekin.

Aduna, 2007ko ekainak 16

O.E.

Maria Etxeberria Urretabizkaia

Arantza Aburuza Alkorta

Idazkaria

Alkatea

